

## Pariseko komunikatua

Paris, 2018ko maiatzaren 25a

2015eko maiatzaren 24an eta 25ean Pariseko bilera egin zen, eta Sorbonako Adierazpena sinatu eta handik hogeit hamar urtera, goi-mailako hezkuntzaz arduratzen diren ministerioek Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren eratze-prozesuan izandako lorpenak ospatzeaz gain, konpromiso sendo eta handiak hartu ere egin zituzten esparrua garatzen jarraitze aldera.

Bolognako Prozesuaren lorpenekin harro agertu ziren, parerik gabeko zerbait eraiki zutelako; GHEE horretan, helburuak eta politikak Europa osorako adosten dira eta, gero, nazio bakoitzeko goi-mailako hezkuntza-sistemetan ezartzen dira. Esparru horretan, goi-mailako hezkuntzako erakundeak eta hainbat interes-talde goi-mailako hezkuntzarako panorama elkarlanean eraikitzen ari dira eta horrek zera adierazten du, goi-mailako hezkuntzaren arteko elkarrizketak eta baterako ahaleginak lorgarriak direla. GHEEaren bitartez, ikasleen mugikortasuna ahalbidetu da eta goi-mailako hezkuntza-sistemen konparagarritasuna eta gardentasuna hobetzeaz gain, sistema horien kalitatea eta erakargarritasuna areagotu ere egin da. GHEEak elkar ulertzea eta elkarrekiko konfiantza ahalbidetu ditu, eta goi-mailako hezkuntzako sistemen arteko lankidetzaren areagotu du.

GHEEaren ardatzak honako hauek dira: askatasun eta osotasun akademikoak, erakundearen autonomia, ikasle eta irakasleek goi-mailako hezkuntzaren gobernantzan parte hartzea eta goi-mailako hezkuntzaren eta hezkuntza horrekiko erantzukizun publikoa. Azken urteotan, hainbat herrialdek zalantzan jarri izan dituzte GHEEaren oinarriko printzipio horiek eta, beraz, ministerioek printzipioak babesteko konpromisoa hartu zuten, elkarrizketa politiko garrantzitsuen eta lankidetzaren bitartez.

Sorbonako eta Bolognako adierazpenak sinatu zirenetik erreforma oso garrantzitsuak egin dira; Europak erronka sozial handiei (langabezia, desberdintasun sozialak, migrazioa, polarizazio politiko handiagoa, erradikalizazioa eta muturreko jarrera biolentoak) aurre egin behar dien une honetan, goi-mailako hezkuntza erabakigarria izan daiteke eta hala izan behar du arazo horiei konponbideak bilatzeko garaian. Halaber, eztabaida publikoa ahalbidetuko duten gertaera faktualak eskaini behar ditu, eta erabakiak hartzen lagundu. Goi-mailako hezkuntzako ikasleei eta beste ikasle batzuei etengabe ikasteko aukerak eskainiz, goi-mailako hezkuntzako erakundeek enplegarritasuneko aukerak areagotzen dituzte eta herritar aktiboak izango dituzten gizarte demokratikoak sortzea ahalbidetzen dute.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, goi-mailako hezkuntzako erakundeek beren erantzukizun soziala bete eta, kulturarteko elkar-ulertzeari, konpromiso zibikoari eta etikoari esker, gizarte kohesibo eta inklusiboagoak sortzen lagundu dezaten lortzeko eta sustatzeko politikak garatzeko konpromisoa hartu zuten, goi-mailako hezkuntzan sartzeko aukeran berdintasuna ere ziurtatuz.

## Adostutako erreformen ezarpenean izandako aurrerapena

Bolognako Prozesuaren ezarpenari buruzko 2018ko txostenean ikus daitekeenez, aurrerapenak izan dira nahiz eta prozesua ez den uniformeak izan ez arlo politikan, ezta herrialde guztietan ere.

Kalitatea ziurtatzea funtsezkoa da GHEEan elkarrekiko konfiantza garatzeko, mugikortasuna areagotzeko eta kualifikazio eta ikastaldien bidezko errekonozimendua lortzeko. Aurrera egin da GHEEan kalitatea bermatzeko Irizpide eta Jarraibideak (ESG) herrialde gehienetako nazio- eta erakunde-jardunbideetan ezartzeko prozesuan, eta nazioetako arau eta erregelamenduen ezarpenerako dauden eragozpenak ezabatzeko konpromisoa hartu zen. Baterako programa eta gradu gehiago gara daitezten sustatzeko, goi-mailako hezkuntzako sistemetan Baterako Programen Kalitatea Segurtatzeko Ikuspegi Europarraren erabilera bultzatuko da. Kalitatea Segurtatzeko Kanpoko prozesuaren Eraitzen Datu Bankuaren (DEQAR Database of External Quality Assurance Results) garapena bultzatu eta indartu da.

GHEEan mugikortasuna eta errekonozimendua ahalbidetzeko, GHEEan lortutako goi-mailako hezkuntzako kualifikazio konparagarriak segurtatzeko lan egingo dugu, horren osteko ikasketak egiteko edo lan-merkatuan sartzeko aukera bermatzearen; horretarako, ECTS kredituen ezarpena bermatzen duten konpromisoak berriro dira, 2015. urteko ECTS-en Erabiltzailearen Gidako jarraibideei jarraikiz.

Europako Kontseilua/UNESCOren Lisboako Errekonozimenduaren Konbentzioko gomendioak ezar daitezten lan egingo dugu, zehazki erbesteratuen, lekualdatutakoen eta errefuxiatu-estatusa dutenen kualifikazioen errekonozimenduari dagokionez. Halaber, kualifikazioen, alde aurreko ikasketen eta alde aurreko ikastaldien errekonozimendurako prozedura gardenak finkatzeko ere eskatu da, aukera digital elkarreragingarrien bitartez.

Tituluaren Gehigarriaren berrikuspena onartu da, eta Lisboako Errekonozimenduaren Konbentzioko esparruek eta Europass-ek bertsio berdin-berdinak hartzeko konpromisoa hartu da. Ikasleen eta gradudunen mugikortasuna areagotze aldera, Tituluaren Gehigarria digitalizatzeko ekimena defendatu da, besteak beste, eta goi-mailako hezkuntzako erakundeei laguntzeko konpromisoa hartu da, datuen elkartruke segurua formatu digital elkarreragingarrietan egin ahal izateko, datuak babesteari buruzko legeria betez. Era berean, "Europako Ikasle Txartela" ("European Student Card") proiektu pilotua interesgarritzat jo da, eta proiektua zabaltzeko egin daiteke, GHEEaren lurraldean ikasleen mugikortasuna ahalbidetzeko.

ECTS kredituetan oinarritutako ziklo laburrek garrantzi handia dute gure sistemetako askotan, ikasleak lanerako ez ezik, osteko ikasketetarako ere prestatzen dituztelako eta, aldi berean, kohesio soziala hobetzen dute, bestela goi-mailako ikasketak egiteko aukerarik izango ez luketen pertsonen aukera hori ematen dietelako. Horregatik, ziklo laburren kualifikazioak eskubide osoko kualifikaziotzat txertatu dira GHEEaren kualifikazioen markoan. Herrialde bakoitzak erabaki dezake zer eta nola txertatu kualifikazioko ziklo laburrak beren nazioko esparruetan.

## GHEEaren potentziala erabat ustiatzea: ezarpena bultzatzea

Esan gabe doa Bolognako Prozesuaren ondoriozko erreformak gauzatzeko, GHEEan erabakitako helburuak eta hartutako konpromisoak egoki ezartzeaz gain, helburu eta konpromiso horiekiko erabateko atxikimendua ere beharrezkoa dela. Politikak garatzen dituztenek, agintari publikoek, erakundeek, plantillek, ikasleek eta bestelako interes-taldeek egindako ahaleginen arabera lortuko da konpromisoak betetzea, baita GHEE osoko koordinazioaren arabera ere.

GHEEaren potentziala erabat esploratzeko eta Bolognako gako-konpromisoak ezartzen direla ziurtatzeko, berdinen artean elkarri laguntzeko egiturak ezartzen ari dira, elkartasunean, lankidetzan eta elkarrekiko ikaskuntzan oinarrituta. 2018tik 2020ra bitarte, berdinen arteko lantaldeak GHEEan kalitatea eta elkarlana indartzeko eta finkatzeko ezinbestekoak diren hiru konpromisoak betetzera bideratuko dira:

- Hiru urteko ziklo-sistema bat, GHEEaren kualifikazio-esparruarekin bateragarria dena, eta lehenengo eta bigarren graduak ECTS kredituetan neurtuta
- Lisboako Errekonozimendurako Konbentzioari atxikitzea,
- Kalitatea segurtatzea, Goi-mailako Heziketaren Europar Esparruan Kalitatea Segurtatzeko Irizpide eta Jarraibideak betez.

Bolognako jarraipen-taldeak (BFUG) berdinen artean elkarri laguntzeko erabakitako ikuspegia ezarri, koordinatu eta gainbegiratu dezala eskatzen dugu, eta berariaz horretarako sortutako Bolognaren Ezarpenerako Koordinazio Taldearen laguntzarekin egin dezala. Berdinen arteko laguntzaren lehenengo txanda aztertuko da eta, BFUGaren bitartez, jarduera horrek etorkizunean jarraitu egin behar duela iradoki zaio zuzendaritzari, eta GHEEaren 2020. urteko hurrengo Ministerio Konferentzian horren berri eman behar dela. Aurreko guztiarekin batera, Erasmus+ programaren erabilera ere sustatu da, lankidetzaren areagotzeko mugikortasunaz haratago, eta konpromiso nagusietan aurrerapenak lortuta.

Bielorrusiak 2015ean egin zuen bat GHEEarekin, ibilbide-orri jakin bat onartuta; aitortu behar da erreformak egiten hasi direla, baina oraindik ere zailtasun oso handiei egin behar diete aurre. Dena den, eskertzen da Bielorrusiak lanerako hartu duen konpromisoa eta 2018-2020 aldirako proposatutako estrategiak ezartzeko beharrezkoa den laguntza emango zaio.

## Berrikuntza Ikaskuntzan eta Irakaskuntzan

Ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren garrantzia eta kalitatea segurtatzea eta areagotzea izan dira azken 20 urteotan Bolognako Prozesuaren egiturazko erreforma funtsezkoen helburuak. Etengabeko ikaskuntzak gero eta garrantzi handiagoa du gaur egungo gizarte eta ekonomietan eta gure herritarren ongizatean. Orain, GHEEari beste zutabe bat gehitu behar diogu: lankidetzaren ikaskuntzako eta irakaskuntzako jardunbide berritzailetan; horregatik, GHEE osoan ikaskuntza eta irakaskuntza etengabe hobetzeko ikuspegi berri eta inklusiboak garatzeko konpromisoa hartzen dugu eta, hori lortzeko,

Europako goi-mailako hezkuntzako komunitatearekiko lankidetzak estuagoa izan behar du, betiere askatasun akademikoa eta erakundeen autonomia erabat errespetatuta.

Europako Unibertsitateen Elkarreak iaz sustatu zuen Ikaskuntzaren eta Irakaskuntzaren Europako Foroak izandako arrakastak argi adierazten du ikaskuntzan eta irakaskuntzan elkarlanak balio eta potentzial handia duela eta onura nabarmenak dituela goi-mailako hezkuntzako erakundeetarako, erakunde horietako langileentzat eta ikasleentzat. Horregatik, naziorako neurriak hartzeaz gain, baterako ekimen europarrak garatuko dira ikaskuntzako eta irakaskuntzako jardunbideen sorta zabala sustatzeko eta indartzeko, herrialde kideetan lehendik egindako jardunbide egokietan oinarrituta. Horrek markatuko ditu ikaslea ardatz izango duen ikaskuntzaren eta hezkuntza irekiaren etorkizuneko garapena eta ezarpena etengabeko ikaskuntzaren kontzeptuaren barruan. Askotariko metodologiak eta ikaskuntza malgua eskaintzen dituzten ikasketa-programek mugikortasuna eta lanbide-garapenaren oinarri izan daitezke eta, aldi berean, ikasleei bizitzako edozein unetan goi-mailako hezkuntzan sartzeko aukera ahalbidetzen diete.

Goi-mailako hezkuntzako erakundeei lagunduko zaie ikaskuntzako eta irakaskuntzako estrategiak garatu eta indartu ditzaten; halaber, diziplinarteko programak eskaintzera animatuko ditugu, baita ikaskuntza akademikoa eta praktikoa uztartzera ere. Ikasleek goi-mailako hezkuntzako maila guztietan topatu behar dituzte ikerketak edo ikerketarekin nahiz berrikuntzarekin lotutako jarduerak, pentsamolde kritiko eta sortzaileak garatu ahal izateko; izan ere, pentsamolde horiek izango baitira erronka berrietarako konponbide berritzaileak bilatzeko gai. Ildo beretik, hezkuntzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren artean sinergiak hobetzeko konpromisoa hartu zen.

Digitalizazioak gizartearen arlo guztietan betetzen duen eginkizuna ikusita, goi-mailako hezkuntza eraldatzeko eta bizitzako une guztietan egin daitekeen ikaskuntzan digitalizazioak duen potentziala aitortu beharra dago; beraz, erakundeei eskatu zitzaizen ikasleak presta ditzatela eta irakasleei modu sortzailean jokatzeko aukera eskaini diezaietela ingurune digital batean. Hezkuntza-sistemek hezkuntza digitalaren edo mistoaren erabilera egokia egitea da kontua, dagokion kalitate-bermearekin, etengabeko ikaskuntza eta ikaskuntza malgua maximiza dadin, gaitasun eta konpetentzia digitalak eskura daitezen, datu-analisia eta hezkuntza-arloko ikerketa hobetu daitezen, eta erregelamenduan hezkuntza digital irekia eragotz dezaketen oztopoak aurreikusi eta ezabatu daitezen. Horretarako, BFUGari eskatzen diogu digitalizazioari ekin diezaion hurrengo lanaldian.

Kalitatezko irakaskuntza funtsezkoa denez kalitatezko goi-mailako hezkuntza lortzeko, karrera akademikoan aurrera egin ahal izateko oinarriak ikerketa eta irakaskuntzaren kalitatea izango dira, gizartearekiko hartutako erantzukizuna ere ahaztu gabe.

Prestakuntza pedagogikoko ekimenak sustatu eta bultzatuko dira erakundeetan, nazioan eta Europan, baita goi-mailako hezkuntzako irakasleen etengabeko lanbide-garapena ere, eta karreretan goi-mailako kalitatezko irakaskuntza berritzailearen errekonozimendurako modu berriak bilatuko dira.

## 2020. urteaz haratago: asmo handiagoko GHEEa

Frogatuta geratu da GHEEa Europako goi-mailako hezkuntzan lankidetzarako esparru ezin hobeia dela. GHEEaren ahalmenak garatzen jarraitzeko, diziplinarreko eta nazioarteko lankidetzara areagotu egingo da eta,aldi berean, ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren ikuspegi inklusiboagoa eta berritzaileagoa landuko da. BFUGari eskatuko zaio 2020ko konferentzia baino lehen proposamenak egin ditzala goi-mailako hezkuntzak gizartearen erronkei aurre egiteko.

Nazioarteko lankidetzara integratua eta berrikuntza eta ikerketa ezarri eta zabalduko dira goi-mailako hezkuntzan, ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen mugikortasuna ahalbidetzeko eta GHEE osoan baterako programa gehiago sortzeko. Era berean, Europako “European Universities” ekimena interesgarritzat jotzen da eta goi-mailako hezkuntzako erakundeak animatuko ditugu horren antzeko inguruneetan lan egitera. BFUGa Ikerketako eta Berrikuntzako Espazio Europarrerako Batzordearekin (ERAC) harremanetan jartzea espero da, GHEEaren eta Europako Ikerketa Arloaren arteko sinergiak garatzeko 2020. urtea baino lehen.

Goi-mailako hezkuntzak planetaren eta gure gizartearen etorkizun jasangarria segurtatzen izango duen eginkizuna areagotzeko konpromisoak ezarri ziren, baita GHEEko ministerioek Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak oso-osorik bete ahal izateko modu berriak bilatzeko ere, dela nazioan, dela Europan.

Bolognako Politiken Foroari jarraikiz, BFUGak elkarriketari ekitea eskatzen da, beste eskualde eta beste nazioarteko erakunde batzuekiko elkarlana hobetuko duten politika globalak ezartze aldera; elkarriketa horren ardatza elkar gehiago ulertzea izango da, eta guztion intereseko ekimen bateratuak sortzea, hala nola goi-mailako hezkuntzak betetzen duen eginkizuna gizarteratzea eta zabaltzea. Horrekin batera, UNESCOren Konbentzio Globalak Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Errekonozimendurako egin dituen ahaleginak eskertzen dira.

Dena den, ahalegin gehiago egin behar dela onartzen dugu, goi-mailako hezkuntzaren alderdi soziala indartze aldera; izan ere, konpromisoa (Europako biztanleriaren aniztasuna adieraztea goi-mailako hezkuntzan sartzen diren eta graduatzen diren ikasleen kopuruan) bete ahal izateko, egoera ahulenean dauden taldeen sarbide-maila eta arrakasta-tasa hobetu behar baitira eta, hortaz, BFUGari eskatzen diogu gaiari hel diezaiola hurrengo Ministerio Konferentzia baino lehen.

## GHEEaren 2020ko Ministerio Konferentzia prestatzeko lanak

2020ko Konferentziari begira, BFUGak Bolognako Prozesuaren Ezarpenari buruzko Txostena egin dezala eskatzen da eta, txosten horretan, Bolognako Prozesua hasiz geroztik GHEEak izandako lorpen handienak aztertzea, baita 2009. urtean Lovainan adostutako mugikortasun-maila zenbateraino bete den ere.

Datozen hamarkadetarako lehentasun nagusien proposamenak helarazteko eskatzen zaio BFUGari, betiere goi-mailako hezkuntzako erakundeekin, ikasleekin, langileekin eta GHEEaren gobernu-taldeekin lankidetzan jardunda.

Biziki eskertzen diogu Italiari bere burua eskaini izana GHEEaren hurrengo Ministerio Konferentzia eta Bolognako Politiketarako Foroa hartzeko 2020an.

## Eranskina

### Hartutako neurriak:

- Berdinen arteko laguntzan oinarritutako ikuspegia, Bolognako hiru konpromiso nagusiak ezartzeko
- 2018-2020 estrategia Bielorrusiarako
- Ziklo laburrak eskubide osoko kualifikaziotzat onartzea Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren Kualifikazio Markoaren barruan (Qualifications Framework of the European Higher Education Area (QF-EHEA))
- Titulazio Gehigarria berrikustea, eta Lisboako Errekonozimendurako Konbentzioaren esparruan eta Europass-en modu berean onar dadin gomendatzea